

LAUDIO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an 2019ko kultura programak bideratzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak hartu zuen erabakiaren laburpena.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2019an norbanakoek edo kultura antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kultura-egitasmoak.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2019an kultura-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren. ALHAOn 2019ko maiatzaren 29 datarekin argitaratu dira.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 42.000 eurokoa izango da, 2019 urteko aurrekontuan eta 0600 3341 48110 partidaren kargutan.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2019ko maiatzaren 30a

Jarduerako Alkate-udalburua, JON IÑAKI URKIXO ORUETA